

LETREK ERE ERREPUBLIKA

Anjel Lertxundi

Mundutarron gorabeherak ordenatzeko modurik justuena —zuzen eta gizatsuena— da errepublika. Hitz horiek idatzi bezain aise, ordea, horra non entzun dudan ahots zakar baten ziria auskalerriko bazterren batetik kantuan:

- *Liberté, égalité eta fraternité, hirur gezur horiek egiak balire!*

Zerurik espero ez duen poeta erdi zoro erdi zuhurraren kantuak Frantziako Errepublikaren errealtatea zuen begien bistan, baina *liberté, égalité* eta *fraternité* idealen utopia zuen amets; errealtatetik utopiara bitarteko amildegia handiak zorroztu zion ziria: ai, hirur gezur horiek egiak balire!

Poeten eremuari *letren errepublika* deitzea otu zitzaionak, idazle kastaren kaosa, anarkia, anabasa adierazi nahi bide zituen *errepublika* hitzarekin. Halatan, *letren errepublika* espresamoldea hizpide gaiztoko kontrastez osatutako esapide ironiatsua genuke: errepublika batek eman ditzakeen alderik txarrenen eredu eta biltegi dira poetak, horra esana.

Hargatik edo, Gabriel Arestik ere arrotz sentitzen zuen bere burua errepublikan:

“Alferrik izan da ene ahalegina, munduak ezpaitu poetarik nahi.”

Errepublika lehendabizikoz definitu zenetik datorkigun egia da, kontu ezaguna baita Platonek ez zuela poetarik nahi bere errepublikan, kontu jakina Tomas Morok ere poetarik gabeko errepublika baten gisa irudikatu zuela Utopia. Poetak deserosoak egiten zaizkio errealtate egunerokoan haragizaturiko errepublika politikoari; desira amestuen Utopia, berriz, poeten premiarik gabeko gobernu gisa irudikatu behar da.

Poeta zioen Platonek, poeta diot neuk ere, baina artista esan beharko nuke. Badira, ordea, poeta eta artista izenekoak artegintzaren alde zorrotzenari —kontzientzia lazarriaren manifestazioari— uko egin eta agintariaren bide bera egiten dutenak. Poeta baten lanbide gizatiarrenari bizkarra erakusten dioten poetak, alegia. *Disidente* izaten ez dakitenak. Agintariari inoiz esango ez diotenak: “Barkatu atrebentzia, Jauna, badakit ez daukadala egiaren monopoliorik, baina ezta berorrek ere; hargatik, behin eta berriz esan behar diot legeetan agertzen dena baino mosaiko konplexuagoa dela berori gobernatzan ari den *errealtatea*. Berori nirekin bat ez badator, ezingo dugu bidea elkarrekin egin; eta berori nirekin bat baldin baletor ere, ezingo genuke, gehienez ere, bidearen zatiño bat besterik elkarrekin egin.”

Beste talaia batean jartzea esan nahi du disidentzia hitzak eta euskarak baditu etimologia horrekin lotura zuzena duten esangura bikaineko adibideak: *beste mutila* deitzen dio euskarak aingeru eroriari,



Kartela: Errepublikaren alegoria

Kartel: Alegoría de la República

Archivo General de la Guerra Civil Española.

erromantikoek disidentziaren eredutzat zeukaten artearen deabru goardakoari; *beste-besteka* deitzen diogu moztarren jolasari, besteen bizitzak antzesten saiatzeari; geure buruaz *beste* egitea deitzen diogu suizidioari, bizitzaren kontra joka dezakegun azken karta-jokoari ere.

Arteak —eta, artearen baitan, literaturak— asko du adibide horien baitako ikuspuntu urrutiratutik, talaia beste toki batean kokatuzetik: nire begi-bistan daukadan errealitateari —mundu guztiak modu beretsuan ikusten duenari— alde ezkutuak, alde itzaltsuak ikusten saiatzea du arteak lanbide. Horretarako, ordea, talaia urrutiratu behar, errealitatea eta utopia kontrastatuko badira. Soziologorik zorrotzena baino lehenago eta sakonago aurreratu zen Kafka burokraziaren makinariak ezdeus bihurtzen gaituela esatera. Tiraniaren ezaugarri nagusiak bildu zituen Roa Bastosek *Yo, el Supremo* eleberrian, eta historian izan diren eta izango diren tirano guztiak daude islaturik bertan. Filosofoek ez bezala (beste bide batetik, alegia) kontatu zuen Cervantesek idealismoaren eta errealismoaren arteko lehia. Hirur gezur horiek egia balire!, egiten du hasperen gure bertsolari apalak.

Errepublika utopikoaren mugak eta errepublika historikoarenak ez datoz inoiz bat, hori da kontua, eta bien arteko eremu zabal lanbrotsu hori du jorrabide letren errepublikak. Eibarren jaio zen errepublikaren aldeko artista eta idazleek bazekiten hainbeste. Errepublikazale agertu baziren, forma politiko ahalik zuzenenaren alde zeudelako izan zen. Baina bazekiten, halaber, askatasuna, berdintasuna eta anaitasuna utopia direla, giza talde bateko arauak denok ezagutzen ditugun legeak baino sakonagoak baitira izatez: gizarte batek beti antolatzen du bere buruaren defentsarako kontrol-sare ezkutua, eta sareko hari mehe-mehe horiek gaiztoagoak izan ohi dira legeak baino. Legeak egin, bozkatu, onartu egiten dira. Kontrol-sareko hariak, ez. Ikustezinak dira, baina legeak baino eragin handiagoa dute herrien garapenean.

Nire aitaren etxea defendituko dut, idatzi zuen Gabriel Arestik, hori esatea disidentzia-modu nabarmena zen garai zailetan. Nola defendatzen da, ordea, aitaren etxea? Noiz, non, norekin, nora joateko? Zein da aitaren etxea, nolakoak ditu egitura, asentua eta neurriak? Aitaren etxea defendatzeko modu bakarra dagoela uste duenak, ez du Aresti ulertu. Eta, okerreagoa dena, ez du aitaren etxea ulertu. Halakoak egiaren jabe ikusten du bere burua, eta aitaren etxea defendatzeko modu bakarra, estua, mugatua, pitzadurarik gabea aldarrikatzen du eta ez ditu bere mugetatik kanpoko beste moduak onartzen. Honaino hel haiteke, *amigo!*, esaten digu halakoak, honaino! Baina hesi hori ez da aitaren etxearen defentsan jaso, bere burua ortodoxotzat duenak bere interesen defentsan eraikia baino, gutariko bakoitzaren interesa eta aitaren etxearena ez baitatuz beti bat.

Errepublika historikoak errepublika utopikoa du ispilu. Halaber, beharrezkoa du letren errepublika ere, baina ez letrek historia txalo dezaten. Tradizio domestikatu baten aitzakiaz moztururiko topikoen, iragan interesatuaren, dogmaren eta leiho itxien defentsa baino haratago, beti haratago dago aitaren etxea, eta hori seinlatu behar du bere burua letren errepublikan kokatzen duen artistak. Ihes egin behar dio mila aldiz entzundako *dena esanda dago* topiko gaiztoari, hori sinesten duenak ez baitu artista ize-



Buru-haundi lasterketa Sanjuan jaietan

Carrera de cabezudos durante las fiestas de Sanjuan.

Eibar, 1993. Castrillo Ortuoste Fondoa. Eibarko Udal Artxiboa

nik merezi. Tradizioa bigarren azal-moduko bat da, eta bizitzaren ekaitz zakarretatik babesten gaitu. Tuntu, ordea, asentu eder-handiko etxearen babes gehiegiak etxezuloegi bihur ez gaitzan. Aitaren etxea ez dago egien gainean soilik eraikia, eta artistak, etxearen asentu ederra kantatzeaz gainera, etxearen oinarri-habe-hormetan dauden sitsak eta pitzadurak seinatzen ditu. Aitaren etxea defendatzeko bere modua da, urrutiratua. Ortodoxoari, ordea, jokabide hori ez zaio aitaren etxea defendatzeko modu zuzena iruditzen. Txaloak saritzen ditu; sitsak seinatzea, aldiz, etxekaltea iruditzen zaio.

Poetak, hiritarra baita, erantzukizun hiritarrak ditu. Baina poetari, poeta baita, erantzukizun artistikoak galdegiten eta estimatzen zaizkio bereziki. Ekar dezadan hona Borges kasua, esaten ari naitzenaren muturrekoa izateak esanguratsu egiten baitu. Itsua izanagatik ere, Borges idazleak begi ernea zuen topiko kulturalak eta literarioak biluzteko orduan. Politikan, ordea, ordenaren aldekoa zen Borges hiritarra; egituratutako gizartearen habe nagusiak zutik eta sendo mantentzearen aldekoa. *Laisser faire* erosoaren zale izaki, zera eskatzen zion estatuari: izan zedila askatasun indibiduala bermetuko zion itzal eta babes doi-doi. Urteak pasatu ahala, difuminatu egin zen —eta egin zaigu— Borges ikuspegi politikoa. Edonola ere, literaturari erakutsi zion talaia-aldaketa oroituko diogu Borges, guttiaren gainetik.

Eraiki behar duen testuko koherentzia eta edertasuna ditu artistak legedi. Denboraren herdoilaz gaindi gera daitekeen obra tajutzea du helburu artistak, eta gure bertsolari apalaren “ai, hirur gezur horiek egia balire!” hasperenak ere esanguratsu izaten segitzen du gaur, ziria zorroztu zuenetik berrehuntsu urte pasatu direnean. Behin testua eraikitakoan, axola gutxi idazlearen zantzuak; ez du garrantzi gogo-betekorik bertsolari apal hura nor zen jakiteak. Geratu zaigun testu konnotazioz bete dugu elikagai: jasoleoi geratzen zaigun emaitza —benetako obra artistiko batek berezkoa duen miraria—, ez idazlea. Aldatu ko al litzateke ezer askorik adituren batek frogatuko baligu ez zela Cervantesik izan, Quijotea anonimoa dela? Felipe II.aren inperioari aspaldi itzali zitzaion zeru zabaleko eguzkia, baina orduko Quijotearen orrialdeetako eguzkiak mundua argitzen segituko du.

Garaiko gizartearekin bat egitea balitz bezala hartu izan dugu konpromiso literarioa, idazlearen konpromiso nagusia bere inguruko uste, nahi eta programa garaikideekin bat etorri edo kontra egotea delakoan. Ulertzekoa da. Handiak izan ziren iragan mendeko aldaketa sozial eta politikoak; lazgarriak oso bi gerrateak; sakonera izugarrikoa bi gerrateen ondorengo amildegi espiritualak. Horregatik, naufragoak oholari nola eutsi genion konpromisoari, uste baikenuen hura zela Adornoren kezkari (posible al da poesia, Auschwitz eta gero?) erantzuteko modu bakarra. Egia esan, mundua mundu denetik egin den galdera dugu Adornorena: zer ukendu-klase da poesia giza zaurientzat? Gizakiak kemen disolbatzailea du irudika daitekeen sufrimendurik basatiena edo pentsa daitekeen oinazetik sofistika-tuena eroangarri bihurtzeko. Baina Adornoren gakoa ez dago Auschwitz eta gero, Auschwitz aurretik baino: beren testuekin Auschwitz aurreko egoera salatu zuten artistak —beren bizitza arriskatuz zer zetorren abisatu zutenak— ditugu gaur goioan.



Toribio Echebarrria (1887-1968). Humanista, idazle eta sozialista eibartarra. Alfa kooperatibaren sortzaileetarikoa eta Gobernuaren ordezkari Campsan II. Errepublikan.

Toribio Echebarrria (1887-1968). Humanista, escritor y socialista eibarrés. Fundador de la cooperativa de producción Alfa y delegado del Gobierno en Campsa durante la II República.

Eibartarren Ahotan Fonda. Aurora Bascaran bilduma.

Kafka, Brecht, Broch, Mann... Artista haiek beren obrarekin zuten konpromiso nagusia. Testuarekin. Letrari letra beren testuetan osatzen zuten mundu autonomo horrekin. Demagun Kafka: idazle pragarrak hamalauko gerra mundialaren garaian idatzi zuen bere obrarik garrantzitsuena. Eta judua zen. Baina irakurleak Kafkaren bizitzaz ezer ez baleki ere, ez luke ezer askorik galduko, ez luke nabarmenduko zein egoeratan idatziak izan ziren *Prozesua* edo *Metamorfosia*. Kafkak itxuraldatu egin zituen gerraren eta judutasunaren eraginak, eta haren obretan kulpaz eta kondenaz ageri den hausnarketa sakonak ez du kazetari batek lanbide duen errealtateaz hitz egiten, errealtate ezkutuago batez baino: giza kondizioaren muin-muinak dira Kafkaren territorioak.

Kafkaren koherentzia, egia, ordenamendu soziala bere obran daude, eta ez idazle batek irakurle-mota jakin batentzat idatzi behar duela dioen uste baldar horretan, idazleak bere irakurle-multzoaren aberkide, ideiakide eta talde bereko izan behar duela uste duen ergelkerian. Idazle batek bere herriaz, bere inguruaz, bere etxeko komunaz bakarrik hitz omen dezake, horra gure egunotan jabetu zaigun minbizia; oso bestelakoa da, ordea Kafkak zein gure bertsolari apalak eman ziguten ikasgaia: obra bat ez da handia bere garaiarekin eta bere denborarekin bat egiten duten elementuak dauzkalako, denbora eta garai hori baino haratago doazen elementuak dauzkalako baino. Luis XVI.ak *Rien!* idatzi zuen bere egunkarian matxinoek Bastille hartu zuten egunean. Luis XVI.a bezain idazle begi labor asko dago letren errepublikan.

Idazleok munduaz hitz egin behar dugu, ondo da. Baina neure buruari gero eta galdera sakonagoak egiten dizkiodan neurrian adieraz dezaket mundua; erantzunak ere gero eta ausartagoak ematen saiatzen naizen galgan. Ez da kontua mundua zuzen ikustea, edo ohitura den moduan ikustea, edo gehienek ikusten duten modu berean ikustea, nork bere moduan ikustea, eta ahalik eta tranpa gutxiarekin adieraztea baino.

Mundutarron gorabeherak ordenatzeko modurik justuena —zuzen eta gizatsuena— da errepublika. Hitz horiek idatzi bezain aise, ordea, hor non entzun dudan ahots zakar baten ziria auskalerriko bazterren batetik kantuan:

- *Liberté, égalité eta fraternité, hirur amets horiek egia izan bitez!*




MINISTERIO DE EDUCACIÓN CULTURA Y DEPORTE.
ARCHIVO GENERAL DE LA GUERRA CIVIL ESPAÑOLA.



FUNDACIÓN PABLO IGLESIAS.



SOCIEDAD DE AMIGOS DE LAGUARDIA ALAVA
BIASTERIREN ADISKIDE ELKARTEA ARABA.



PATRONATO DE DON NICETO ALCALÁ ZAMORA.



SABINO ARANA KULTUR ELKARGOA.
ABERTZALETASUNAREN MUSEOA ETA AGIRITEGIA.

*Aitaren etxea ez dago egien gainean
soilik eraikia, eta artistak, etxearen
asentu ederra kantatzeaz gainera,
etxearen oinarri-habe-hormetan
dauden sitsak eta pitzadurak
seinalatzen ditu.*

Anjel Lertxundi